

## Bestelako Xedapenak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2460

8/2010 EBAZPENA, apirilaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-sostengua emateko programa espezifiko berria» onartzeari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia argitara dadila xedatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko apirilaren 13an egindako bilkuran, «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko programa espezifiko berria» onartzeko Erabakia hartu du; beraz, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honakoa

EBATZI DUT:

**Artikulu bakarra.**– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea «2010. urtean sektore estrategikoetako enpresei finantza-sostengua emateko 2010eko programa espezifiko berria» onartzen duen Erabakiaren testua. Eranskin gisa ageri da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN  
IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO  
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN  
APIRILAREN 27KO 8/2010 EBAZPENAREN

ERABAKI-PROPOSAMENA, SEKTORE  
ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI  
FINANTZA-LAGUNTZA EMATEKO BERARIAZKO  
PROGRAMA BERRIA ONESTEN DUENA, 2010.  
URTERAKO

Krisi ekonomikoa eta krisia eragin zuten arrazoiak zabaldu eta luzatu izanaren ondorioz, EAeko Administrazio Orokorrak beste programa bat eratu behar du aurreko urtean abiarazitako neurrien aplikazio partziala 2010. urterako eguneratzeko. Horien artean nabarmentzekoak dira Gobernu Kontseiluaren 2009ko otsailaren 10eko erabakiaren bitartez eta sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko programaren deialdia garatu eta argitaratu zuen

## Otras Disposiciones

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2460

RESOLUCIÓN 8/2010, de 27 de abril, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno «por el que se aprueba el nuevo programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010».

Habiéndose aprobado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 13 de abril de 2010, el Acuerdo «por el que se aprueba el nuevo programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010», y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

**Artículo único.**– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del Acuerdo «por el que se aprueba el nuevo programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos para el año 2010», que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2010.

La Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 8/2010, DE 27 DE  
ABRIL, DE LA DIRECTORA DE LA SECRETARÍA  
DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL  
PARLAMENTO

PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE  
APRUEBA EL NUEVO PROGRAMA ESPECÍFICO DE  
APOYO FINANCIERO A EMPRESAS DE SECTORES  
ESTRATÉGICOS PARA EL AÑO 2010

La extensión y prolongación de la crisis económica y de las razones que la originaron impulsa a la Administración General de la CAE a la articulación de un nuevo programa que actualice para el año 2010 la aplicación parcial de las medidas implementadas en el año precedente. Entre ellas cabe destacar aquellas autorizadas mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 10 de febrero de 2009 y en la consiguiente Orden de 3 de marzo de 2009 de la Consejera de Hacienda

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko martxoaren 3ko Aginduan baimendutakoak.

Hori dela eta, erabaki honen helburua da finantzaketa eskuratzeko berariazko beste laguntza-programa bat eratzea, duten enplegu- edo jarduera-bolumenaren ondorioz enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa garatzen duen otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuan sartu ezin diren sektore estrategikoetako enpresentzat. Berariazko programa hori prestatzeko, Ekonomia eta Ogasun Sailak bidezko lankidetzaz hitzarmenak sinatuko ditu elkarrekiko berme-baltzuekin eta finantza-erakundeekin.

Finantza-laguntzaren programa horrek, aurreko urtekoak bezala, lehenetsuna emango die proiektu bideragarrien finantzaketari, enpresaren zeharkako jarduera edo bere hornitzaile katea mantentzeko, balio erantsi gehiago sortzeko eta, batez ere, enplegua sortu eta mantentzeko.

Hori guztia dela eta, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, erabaki hau hartu du:

#### ERABAKIA

«Lehenengoa.— Onetsi egingo da sektore estrategikoetako enpresentzako berme-lerroa ezarri eta prestatzea, erabaki honetan aurreikusitako baldintza eta betekizunen arabera. Lerro horren helburua izango da bankuaren finantzaketa lortu ahal izatea zirkulatuaren beharrak estaltzeko, epe laburrerako zorra berritzeko eta epe laburrerako zorra epe ertain eta luzerako zorrera egokitu ahal izateko, gehienez 100.000.000 euroko zenbatekoarekin.

Bigarrena.— Bermeak eta erabaki honetan azaldutako finantzaketa-lerroko baliabideak eskuratu ahal izango dituzte otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuan aurreikusitako finantzaketa-lerroa eskuratu ezin izan duten enpresek, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

– Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta jarduera nagusia bertan garatzea.

– Mikroenpresak, enpresa txikiak edo enpresa ertainak ez izatea, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendioan (EEAO, L24, 2003ko maiatzaren 20koa) enpresa txiki eta ertain definizioari buruz ezarritakoaren edo gomendio hori ordeztu edo aldatzeko xedapenetan adierazitakoaren arabera.

y Administración Pública por la que se desarrollaba y hacía pública la convocatoria del programa específico de apoyo financiero a empresas de sectores estratégicos.

El presente Acuerdo pretende, por ello, la articulación de un nuevo programa específico de apoyo al acceso a la financiación para aquellas empresas de sectores estratégicos que, por su volumen de empleo o de actividad, no puedan acogerse al Decreto 41/2010, de 9 de febrero, por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, empresarios individuales y profesionales autónomos. Con el objeto de instrumentar el presente programa específico, el Departamento de Economía y Hacienda suscribirá los oportunos convenios de colaboración con las sociedades de garantía recíproca y las entidades financieras.

Este programa de apoyo financiero, como el del año precedente, priorizará la financiación de proyectos viables, el mantenimiento de la actividad indirecta de la empresa o de su cadena de proveedores, la generación de mayor valor añadido y, fundamentalmente, la creación y/o mantenimiento del empleo.

Por todo ello, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, el Consejo de Gobierno, previa deliberación, adopta el siguiente

#### ACUERDO

«Primero.— Aprobar el establecimiento y la instrumentación de una línea de garantías a favor de empresas de sectores estratégicos, de conformidad con las condiciones y requisitos previstos en el presente Acuerdo. Esta línea tendrá como finalidad permitir el acceso a la financiación bancaria para la cobertura de las necesidades de circulante, la renovación de la deuda a corto plazo y la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo, con una dotación máxima de 100.000.000 de euros.

Segundo.— Podrán acceder a las garantías y a la línea de financiación contempladas en el presente Acuerdo las empresas que, no habiendo podido acogerse a la línea de financiación prevista en el Decreto 41/2010, de 9 de febrero, cumplan los siguientes requisitos:

– Que estén domiciliadas y desarrollen su actividad principal en la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

– Que no tengan la consideración de microempresa, pequeña o mediana empresa de acuerdo con la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de pequeñas y medianas empresas (DOCE, L24, de 20 de mayo de 2003), o las disposiciones que la modifiquen o sustituyan.

– Zuzenean edo zeharka beste enpresa baten edo batera beste enpresa batzuen % 25etik gorako partaidetza duenean, enpresa horiek egoitza EAEn izatea eta jarduera nagusia bertan garatzea.

Hirugarrena.– Finantzaketa-lerro hori jarduera ekonomikoko sektore guztientzat izango da, baina ezin izango dira onuradun izan erakunde eta sozietate publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta finantza-, eraikuntza- eta higiezin-, energia-, siderurgia- eta garraio-sektoreetako enpresak.

Halaber, finantzaketa eskuratu ahal izateko, enpresa ezin izango da egon krisi egoeran, Europako Batzordearen 2004/C244/02 Komunikazioan ezarritakoa betez (EEAO, 2004ko urriaren 1ekoa); horrez gain, enpresak egunean izan beharko ditu forualdundiekiko eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak.

Laugarrena.– Nolanahi ere, erabaki honetan azaldutako bermeetan eta finantzaketa-lerroan parte hartzearen ondorioz, onuradunak enplegua mantentzeko konpromiso formala hartu beharko du. Gauzak horrela, abalaturako finantza-eragiketak indarrean egon bitartean, onuradunak ezin izango du enplegu-erregulazioko espedienterik proposatu lan-kontratuak iraungitzeko asmoz. Hala ere, lan-agintaritzaren aurrean justifikatutako arrazoirik egonez gero, onartu egin ahal izango da prozedura hori, lan-kontratuak aldi baterako eteteko.

Bosgarrena.– Honako hauek izango dira maileguen ezaugarriak:

a) Abalaturako eragiketa bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da.

b) Abalaturako onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 1.500.000 eurokoa izango da. Elkarrekin osatzen duten enpresen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definitutakoaren arabera, elkarte horretako enpresa guztientzako gehieneko zenbatekoa ezin izango da 4.500.000 euro baino gehiagokoa izan.

Zenbateko horren barruan egongo dira, horrelakorik egotekotan, elkarte bateko kide diren enpresa txiki eta ertainei emandako maileguak, enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa garatzen duen otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren babesean zein enpresa txiki eta ertainen finantza-laguntza emateko programa garatu duen abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuaren babesean emandakoak.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2009ko martxoaren 3ko Aginduak onetsitako programa baliokideari heldu zioten enpresek eskuratutako finantzaketa artikulua honetan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa murriztuko du, programa honen babespean berriro finantzaketa emateko ondoretarako.

– Que cuando se halle participada directa o indirectamente en un 25% o más por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas, éstas estén domiciliadas o desarrollen su actividad principal en la CAE.

Tercero.– Esta línea de financiación estará abierta a todos los sectores de actividad económica quedando excluidas como beneficiarios los entes y sociedades públicas, las entidades sin ánimo de lucro y las empresas pertenecientes a los sectores financiero, construcción e inmobiliario, energético, siderúrgico y transporte.

Asimismo, será requisito para acogerse que la empresa no esté en situación de crisis, según lo establecido en la Comunicación de la Comisión 2004/C244/02 (DOCE de 1 de octubre de 2004), así como que está al corriente en el pago de sus obligaciones con las Diputaciones Forales y la Seguridad Social.

Cuarto.– En todo caso, el acceso a las garantías y a la línea de financiación contempladas en el presente Acuerdo conllevará el compromiso formal del beneficiario a mantener el empleo. En tal sentido, durante la vigencia de la operación financiera avalada, el beneficiario no podrá plantear un expediente de regulación de empleo con el fin de proceder a la extinción de contratos de trabajo, aunque siempre que sea por causas justificadas ante la autoridad laboral, pueda admitirse dicho procedimiento con el fin de proceder a la suspensión temporal de contratos de trabajo.

Quinto.– Las características de los préstamos serán las siguientes:

a) La cuantía mínima por operación avalada será de 600.000 euros.

b) La cuantía máxima por beneficiario avalado será de 1.500.000 euros. En el caso de empresas que formen grupo, según se define en el artículo 42 del Código de Comercio, la cuantía máxima agregada para el conjunto de las empresas de ese grupo no podrá superar la cifra de 4.500.000 euros.

Este importe incluirá, en su caso, los préstamos otorgados a PYMEs que formen parte de un grupo al amparo del Decreto 41/2010, de 9 de febrero, por el que se desarrolla el programa de apoyo financiero a PYMEs, empresarios individuales y profesionales autónomos así como los concedidos al amparo del Decreto 230/2008, de 30 de diciembre, por el que se desarrollaba el programa de apoyo financiero a las PYMEs.

La financiación obtenida por aquellas empresas que se hubieran acogido al programa equivalente aprobado por la Orden de 3 de marzo de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública minorará el importe máximo previsto en este artículo a efectos de concesión de nueva financiación al amparo de este programa.

c) Mailegu-eragiketen epea hiru urtekoa izango da, eta urte bateko gabealdia ezarri ahal izango da, amortizaziorako. Hiru hilean behin egingo da interesen eta amortizazio-kuoten likidazioa, amaitutako epeetan.

d) Aplikatu beharreko interes-tasa euribor gehi % 1,50eko tartea izango da, hiru hilean behin berrikusteko. Ondorio horietarako, euribor gisa ulertu behar da, Reuter-en euribor= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, aurrekoa desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori hiru hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko azken astegunean kalkulatzen da, hala badagokio. Ez da biribiltzerik onartuko.

e) Ez da bestelako komisio edo gastu gehigarririk aplikatuko.

f) Onuradunak emandako maileguaren zenbateko osoa izango du erabilgarri. Finantza-erakundeak ezin izango ditu saldoak atxiki edo pignoratu, ezta emandako maileguaren edo kredituaren onuradunak eskura dezakeen zenbatekoa murrizteko antzeko figurarik aplikatu ere.

g) Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezeztatu edo amortizatu ahal izango du mailegua edo kreditua, inolako kosturik gabe.

h) Finantzaketa-programa honetan laguntzen duten finantza-erakundeek, «KOI-2010 lerroetarako finantzaketa-baldintza orokorren kontratu markoa» eta «KOI-2010eko likidezia finantzaketa-lerroaren baldintza berezien kontratua» sinatu badituzte Kreditu Ofizialeko Institutuarekin, «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpillerroaren arabera jasotako finantzaketa aplikatu ahal izango diote programa honi.

Horrelakoetan, «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpillerroaren babesean formalizatuko diren maileguen finantza-baldintzak bertan xedatutakoaren arabera izango dira. Hala eta guztiz ere, maileguek nahitaez bete beharko dituzte honako bi inguruabar hauek:

– Epea 3 urtekoa izango da, urte bateko gabealdiarekin.

– Maileguen interes-tasa KOIren lagapen-tasa finkoa izango da, «Finantzaketa % 100 KOIrena - Arriskua % 100 kreditu-erakundeena» azpillerroan definitutakoaren arabera, gehi % 0,90eko diferentziala gehienez.

Elkarrekiko berme-baltzu laguntzaile batek abalatuko ditu maileguak, eta eskatzaileek agindu honetako gainerako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

i) Elkarrekiko berme-baltzuek egokitzen jotzen dituzten bermeak –errealak edo bestelakoak– eskatu

c) El plazo de las operaciones de préstamo será de tres años, con uno de carencia opcional para la amortización. La liquidación de intereses y de cuotas de amortización se efectuará con periodicidad trimestral, por períodos vencidos.

d) El tipo de interés aplicable será el euribor más un margen de 1,50%, revisable trimestralmente. A estos efectos, se entenderá por euribor, el tipo de interés interbancario obtenido a través de la pantalla euribor=, de Reuter, base (Act/360), u otra pantalla que suministre la misma información en el caso de que desaparezca la anterior, para depósitos a tres meses, el último día hábil anterior a la fecha de la operación o a la fecha de revisión, en su caso. No será admitido redondeo alguno.

e) No se aplicará ningún tipo de comisión o gasto adicional.

f) El importe íntegro del préstamo concedido estará a disposición del beneficiario. La entidad financiera no podrá retener o pignorar saldos ni aplicar figuras similares que reduzcan el importe disponible para el beneficiario del préstamo o crédito concedido.

g) El prestatario podrá cancelar o amortizar anticipadamente el préstamo o crédito sin coste alguno.

h) Las entidades financieras colaboradoras de este programa de financiación que a su vez hubieran suscrito con el Instituto de Crédito Oficial tanto el «contrato marco de condiciones generales de financiación para las líneas ICO-2010» como el «contrato de condiciones particulares de la línea de financiación ICO-Liquidez 2010», podrán aplicar la financiación obtenida en virtud de la Sublínea Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC al presente programa.

En este caso, las condiciones financieras de los préstamos que se formalicen al amparo de dicha Sublínea Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC se adecuarán a lo dispuesto en la misma. No obstante, estos préstamos deberán respetar necesariamente las dos siguientes características:

– El plazo será de 3 años, con uno de carencia.

– El tipo de interés de los préstamos será de Tipo de Cesión Fijo ICO, tal como viene definido en la Sublínea Financiación 100% ICO-Riesgo 100% EECC, más un diferencial máximo de 0,90%.

Estos préstamos serán avalados por una sociedad de garantía recíproca colaboradora y sus solicitantes deberán cumplir el resto de condiciones generales de esta Orden.

i) Las sociedades de garantía recíproca podrán solicitar las garantías, reales o de otro tipo, que conside-

ahal izango dituzte maileguak itzuliko direla bermatzeko.

j) Elkarrekiko berme-baltzuek eragiketak baimendu eta gehienez hiru hilabeteko epean formalizatu ez badira, indarrak gabe geratuko dira, eta finantzaketa-programa honetatik kanpo geratuko dira.

Seigarrena.— Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren aginduaren bitartez egingo da finantzaketa-lerro honetan parte hartu ahal izateko deialdia, eta erabilgarri dauden baliabideen guztizko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epe eta lekua eta gainerako prozedura-alderdiak zehaztu beharko dira bertan. Era berean, deialdian lagunduko duten finantza-erakundeen eta elkarrekiko berme-baltzuen zerrenda ere zehaztuko da.

Zazpigarrena.— Erabaki honetan aurreikusi ez den guztiari otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren xedapenak aplikatu beharko zaizkio.

Zortzigarrena.— Finantza-laguntza emateko programa eskatzen duten enpresek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Ekonomia eta Ogasun Sailari, eta dagokion elkarrekiko berme-baltzuari edo finantza-erakundeari entzun ostean bideratuko dira horiek. Ogasun eta Finantzetako sailburuordearen ebazpenaren bidez gaitzetsiko da, guztiz edo zati batean, aurkeztutako erreklamazioa.

Bederatzigarrena.— Finantza-laguntza emateko programa honen enpresa onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Ekonomia eta Ogasun Sailaren bitartez egingo dituen egiaztapen-, ikerketa- eta ikuskapen-jardueren pean ipini beharko dira. Jarduera horien ondorioz egiaztatuko balitz enpresa onuradunen batek baldintzaren bat bete ez duela, bidezko elkarrekiko berme-baltzuari eta finantza-erakundeari jakinaraziko zaie inguruabar hori, emandako finantzaketa ezezza dezaten. Hori dela eta, enpresa onuradunak uko egin beharko dio eragiketari, aurretiaz amortizatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hartutako birfinkatzeko betebeharren ondorioz Administrazioak ordainetan hartu behar baditu egindako ordainketak, enpresa onuradun bati egozteko moduko ez-betetzeen ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak zehaztuko du, bidezko prozedura bideratu eta enpresa onuradunari entzun ondoren, enpresa horren zorraren zenbatekoa eta hori ordaintzeko modu eta epea.

Hamargarrena.— Onetsi egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta elkarrekiko berme-baltzuen artean erabaki honen eranskinean azaldu den hitzarmena formalizatzea.

ren pertinentes con el fin de garantizar la devolución de los préstamos.

j) Aquellas operaciones que no se formalicen en un plazo máximo de tres meses desde la fecha de autorización por parte de las sociedades de garantía recíproca decaerán, quedando excluidas del presente programa de financiación.

Sexto.— La convocatoria para acceder a esta línea de financiación se realizará por Orden del Consejero de Economía y Hacienda, que precisará el importe total de los recursos disponibles, el plazo y lugar para la presentación de solicitudes y demás aspectos procedimentales, y que incluirá la relación de las sociedades de garantía recíproca y entidades financieras colaboradoras en la convocatoria.

Séptimo.— En todo lo no previsto en el presente Acuerdo, serán de aplicación las disposiciones del Decreto 41/2010, de 9 de febrero.

Octavo.— El Departamento de Economía y Hacienda podrá recibir las reclamaciones que por parte de las empresas solicitantes del presente programa de apoyo financiero se formulen, que serán sustanciadas una vez oída la sociedad de garantía recíproca o la entidad financiera correspondiente. La desestimación total o parcial de la reclamación presentada se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Hacienda y Finanzas.

Noveno.— Las empresas beneficiarias del presente programa de apoyo financiero habrán de someterse a las actuaciones de comprobación, investigación e inspección que realice la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del Departamento de Economía y Hacienda. Si como consecuencia de las actuaciones realizadas se comprobara la existencia de algún tipo de incumplimiento por parte de alguna de las empresas beneficiarias se comunicará dicha circunstancia tanto a la sociedad de garantía recíproca como a la entidad financiera correspondiente para que procedan a la anulación de la financiación concedida lo que exigirá que la empresa beneficiaria renuncie a la operación mediante su amortización anticipada.

Si de conformidad con las obligaciones de reafianzamiento asumidas por la Administración de la Comunidad Autónoma ésta debiera resarcirse de los pagos realizados, como consecuencia de incumplimientos imputables a una empresa beneficiaria, el Consejero de Economía y Hacienda determinará, previa sustanciación del procedimiento correspondiente y oída la empresa beneficiaria, el importe de la deuda de dicha empresa así como la forma y el plazo para su abono.

Décimo.— Aprobar la formalización del convenio entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las sociedades de garantía recíproca que se adjunta como anexo al presente Acuerdo.

Hamaikagarrena.— Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak argitaratuko du akordioa».

Onceavo.— Por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento se procederá a la publicación de dicho Acuerdo».